



**Arartekoaren 2016NI-811-14 ebazpena, 2016ko otsailaren 25ekoa; horren bitartez, Lasarte-Oriako hezkuntza zentroetan ikasle etorkinak modu orekatuagoan banatzeko premiari buruzko kexa zela-eta abiarazitako esku-hartzea bukatu da (kexa espedientearen zk.: 811/2014/QC).**

### Aurrekariak

1.- 2014ko apirilean, *Burunzpe* guraso elkarteko zenbait ordezkari kexu agertu ziren erakunde honen aurrean, Lasarte-Orian kokatutako haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako bi zentro publikoetan ikasle etorkinen banaketa desorekatua zelako.

Udalerrri horretan haur eta lehen hezkuntzako bi fase horiei dagokien hezkuntza eskaintza Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mende dauden bi hezkuntza zentro publikoen bitartez egiten da: Garaikoetxea-Landaberri HLHI eta Sasoeta-Zumaburu HLHI. Bigarren zentro horretan daude eskolatuta *Burunzpe* elkarte horren kideen seme-alabak, eta zentro horrek dauka ikasle etorkinen indize edo proportzio handiena; egoera horrek, aipatutako elkarteko kideen esanetan, zenbait ondorio kaltegarri eragiten ditu hertsiki hezkuntza mailan zein esparru sozialean.

Kexa aurkezterakoan elkarte horretako kideek erakunde honi azaldu ziotenez, beraien ustez desoreka hori eragiten ari zen faktoreetako bat zen, hain zuzen ere, P. Garaikoetxea-Landaberri HLHI zentroak ikasleak onartzeko baremazio irizpide gisa aplikatzen zuela ikastetxe horretan eskolatu nahi zituzten haurren familia interesatuetako gurasoak ikasle ohiak izatea, baldintza gisa. *Burunzperen* arabera, P. Garaikoetxea-Landaberri HLHI zentroak irizpide hori aplikatzeak emaitza baztertzailerak eragiten ditu. Nolanahi ere, ordezkari horiek, horrez gain, beste era bateko neurriak hartzeko beharrezana ere planteatu zuten, besteak beste, eskola mapa orekatzea, zentroein beharrezko babes zehatzak ematea edota ratioak gainditzeko aukera modu orekatuan erabiltzen saiatzea, baita bi hezkuntza zentroak batzeko prozesua aztertzea ere.

2.- Kexa aurkezterakoan, *Burunzpe* guraso elkarteko ordezkariak, halaber, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunei ere ildo bereko idatzia igorri zieten.

Arduradunek modu positiboan erantzun zuten eta azaldutako gaiari dagokionez ulerkor agertu ziren. Are gehiago, arduradun horiek hainbat eragilarekin harremanetan jarri ziren eta zenbait bilera egin zituzten, eta horiei jarraiki, 2014ko urrian Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak konpromisoa hartzen zuela iragarri zuen, hain justu ere indarrean zegoen araudiak eskainitako aukerak muturrera eramateko, bi zentroen arteko desorekak okerrera egin ez zezan eta, inplikaturako eragile guztiekin hasitako harremanei eusteko, udalerrian eskolaratzeari buruzko adostasunak bilatzen saiatze aldera.





3.- Hilabete batzuk geroago, Lasarte-Oriako hezkuntza zentro horien egoera Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza Batzordeak 2015eko maiatzaren 27an egindako bileran landu zen.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak agerraldi hark ematen zion aukera baliatu zuen, eta, sarrera gisa Lasarte-Oriako hezkuntza plangintzak azken hogeitun urteetan izandako bilakaera azaldu ondoren, *Burunzpe*, elkartearen kexen haritik izandako harremanen ondorioz hartutako erabakien berri eman zuen; erabaki haiek hiru plangintza tresnaren ingurukoak ziren: 1) Udalerria zonifikatzeko aukera 2) zentroak hezkuntza etapan arabera fusionatu edo integratzeko aukera eta 3) hezkuntza proiektu globala ezartzeko aukera. Hala ere, azaldutako aukera guztietatik bigarren hezkuntzako zentroak fusionatzeko aukera baino ez zen aintzat hartu; aukera hori modu globalean garatzea aurreikusi zen.

Sailburuaren agerraldiak agerian utzi zuen sailak ez zuela beharrezkotzat jotzen ikasleak onartzeko prozesuetan aplikatzen ziren onarpen lehenetsiko irizpideak berraztertzea plaza nahikorik ez zegoen kasuetan, bereziki gurasoak ikasle ohiak izandako egoeretan; azaldu dugunez, irizpide hori P. Garaikoetxea-Landaberri HLHI zentroak aplikatzen du, eta *Burunzpe* guraso elkarteak ordezkariak baztertzailatzat jo izan dute. Are gehiago, kasu zehatz honi dagokionez, hezkuntza administrazioak Arartekoaren erakundeak azaldezakeenari erreparatuko ziola azaldu zen.

Hezkuntza Batzordearen saio hartan aurreikusitako agerraldien artean bazegoen, halaber, orduko jarduneko arartekoak eskatutako agerraldia ere, hain justu ere P. Garaikoetxea-Landaberri HLHI zentroak baliatutako onarpen irizpideari buruz *Burunzpe* guraso elkarteak aurkeztutako kontsultaren haritik azalpenak emateko.

Agerraldia proposatzerakoan, jarduneko arartekoak argi eta garbi utzi nahi izan zuen Lasarte-Oriako hezkuntza errealitateari buruz egin nahi den edozein jarduketa modu erabat integralean jorratu behar zela, hau da, aipatutako udalerriko hezkuntza eskaintza publikoa osatzen duten zentroy artean gertatzen diren desberdintasunak gainditzeko lagungarriak izan daitezkeen neurri guztiak gogoan izan eta indarrean jarri.

Horren haritik, bereziki nabarmendu nahi izan zuen onarpen lehenetsiko irizpideak bidezkoak diren ala ez zehazteko azterketa horrek (bereziki gurasoak ikasle ohiak izateko baldintzari zegokionez) ezin zuela eragin perspektiba integral hura ahaztea, hain zuzen ere perspektiba horrek azaltzen baitzuen gure hasierako esku-harteari emandako ikuspegia, hasiera-hasieratik bideratu baitzen *Burunzpe* guraso elkartearen kexaren berri izan ondoren Hezkuntza Sailak iragarritako lehenengo konpromisoak benetan betetzen ote ziren egiaztatzeko jarraipena egitera.

Bestalde, jarduneko arartekoak azpimarratu nahi izan zuen onarpen irizpideei buruzko auzi hau ez dela lotu behar eta ezin dela lortu soilik leku jakin batzuetan dagoen hezkuntza errealitate zehatzekin, Lasarte-Orian bizi den errealitatearekin,





adibidez; izan ere, gure Autonomia Erkidegoan funts publikoekin finantzatzen diren hezkuntza zentro askotako onarpen prozesuetan irizpide hori aplikatzen da.

Nolanahi ere, agerraldiaren amaieran, jarduneko arartekoak iragarri zuen erakundetik une horretako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunei kolaboratzeko eskaera egin zitzailela, hezkuntza zentroek aipatutako onarpen irizpidea erabiltzea babes dezakeen justifikazio objektiboa eta arrazoizkoari buruzko informazioa eman zezaten, Burunzpe elkarteak sustatutako kontsultari buruzko behin betiko ebazpena eman aurretik.

4.- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek ez zuten denborarik galdu kolaborazio eskaera horri erantzuteko eta erantzuna azaltzeko txostena igorri zuten erakunde honetara; txosten hartan batez ere bi gai nabarmendu nahi izan zituzten:

\* Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) libreki zehaztutako irizpideak aplikatzeak (gurasoen ikasle ohien baldintzari dagokion irizpidea bera tartean) martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren babesa duela, herri ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautu zuena, baita dekretu hori aplikatzeko urtero eman diren aginduen babesa ere, beharrezko jarraibideak eta egutegi komuna ezartzeko; urteroko agindu horien haritik eman diren nahitaezko txosten juridikoetan ez da inoiz adierazi horren gaineko inolako eragozpenik.

\*Inolako oztoporik gabe onartu ohi den irizpide bat dela, gainera, eta eskola kontseiluek eta ordezkari organo gorenak libreki zehaztutako irizpide ohikoenetako bat dela.

5.- Jarraian, espedienteari buruzko ebazpena eman gabe zegoela, *Burunzpe* elkarteko kideek erakundearekin beste bilera bat izateko eskaera egin zuten.

Bilera horretan (iazko azaroan egin zen) beraien ikuspuntuaren arabera udalerriko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako bi zentro publikoen artean ikasleen banaketa orekatua ez izateak eragiten dituen ondorioak nabarmendu nahi izan zituzten guraso elkarteko ordezkariak, beste behin ere. Hala, hertsiki hezkuntza arloari dagokionez, desoreka horrek euskararen erabileraren normalizazioan daukan zuzeneko eraginari buruzko ohartarazpena ere egin zioten Arartekoa erakundeari. Eskola porrotari eta eskola barruko elkarbizitzari lotutako hainbat alderditan daukan eraginari buruzko ohartarazpena ere plazaratu zuten. Horrez gain, *Burunzpe* kezkatuta agertu zen, haien iritziz gizarte mailan ere antzematen diren ondorioengatik, etorkinen komunitateak segregazioa pairatzeko arrisku larria baitu.

Bukatzeko, Arartekoaren erakundeari eskatu zioten honek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskaria egin ziezaion Lasarte-Oriako eskola normalizaziorako premiazko planen bat, desberdintasunak orekatzeko eta eskola arloan aukera berdintasuna bermatzeko dokumentu bat aurkez zezan.





6.- *Burunzpe* guraso elkarteko ordezkariekin azken bilera hori egin eta gero, eta ebazpen hau eman aurretik, arartekoak eta bere taldeak beste batzar batzuk ere izan dituzte, informazio osagarri berria jasotze aldera.

Helburu horri jarraiki, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunekin, Lasarte-Oriako alkatearekin, Euskadiko Eskola Kontseiluko ordezkariekin eta P.Garaikoetxea-Landaberri HLHI zentroko ordezkariekin batzartu gara.

### Gogoetak

1.- Espedientea izapidetu den bitartean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onartu egin du Lasarte-Oria udalerriko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako faseetako bi zentro publikoen artean ikasle etorkinen banaketa desorekatua dela.

Sailak berak emandako txostenetan jaso diren datuen arabera (eta datuok ondoren sailburuak ere eman zituen, Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza Batzordearen aurrean egindako agerraldian), Sasoetea Zumaburu HLHI zentroan dauden ikasle etorkinen ehunekoa % 25ekoa da, eta Garaikoetxea-Landaberri HLHI zentrokoa, berriz, % 5ekoa. (2012-2013 ikasturteko datuak dira).

Horrenbestez, berrets dezakegu eztabaidatzen ez den premisa batetik abiatzen garela, eta, are gehiago, Hezkuntza administrazioa bera ere kezkatuta dagoela egoera hori dela medio.

2.- Gure ustez garrantzitsua da lehenago adierazitakoa nabarmentzea, eskola zentroetan ikasleen banaketa parekidea bermatzeko helburua xenofobia, arrazakeria eta bestelako intolerantzien aurkako borrokaren esparruan lan egiten duten Europa mailako eta nazioarteko hainbat erakundek proposatutako gomendioetako bat baita.

Arrazakeria Desagerrarazteko Batzordearen kasuan (CERD), esaterako, Espainiaren haritik aldizka aurkeztutako txostenen amaierako oharretan kezka agertu zuen haur etorkinek eta ijitoek osatutako "ghetto" eskolak daudelako, 2006ko Hezkuntzako Lege Organikoak ikasleen banaketa orekatu eta egokia ahalbidetzeko mekanismoak aurreikusi zituen arren; horrez gain, erakunde horrek ikastetxe publiko eta pribatuetan aplikatutako onarpen prozesuen irizpideak eta metodoak berrikusteko eta ikastetxeetan ikasleen benetako banaketa orekatua egotea bermatzeko neurriak hartzeko gomendioa egitea erabaki zuen.

Ildo beretik mintzatu da Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europar Batzordea (ECRI) ere, Hezkuntzako Lege Organikoaren (2006) aurrerapenak ezagutu ondoren, eta ikusita legeak ez duela beti praktikan emaitza eraginkorrik ematen, agindu zorrotza eman zien Espainiako agintariei, zentro publiko eta itunpeko zentroetan ikasleak onartzeko metodoa berrikus dezaten eta ikastetxe





desberdinetan ikasle espainiar, etorkin eta ijitoen banaketa orekatua bermatzeko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzeko.

Gauza bera gertatu da Oinarrizko Eskubideen Agentzia Europarrarekin (FRA); izan ere, agentzia horrek emandako hainbat txostenetan Espainia estatuari hainbat gomendio eman dizkio aurretik ECRI erakundeak emandako gomendioak aurrekari gisa hartuta.

Aurreikus zitekeen moduan, gomendio horiek guztiek zuzeneko eragina izan dute estatu mailan azken urteetan abiarazitako hainbat ekimenetan, Herritarren Integrazio Plan Estrategikoaren kasuan, esaterako Herritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoan; bertan argi eta garbi finkatu zen atzerriko jatorria zeukaten ikasleak txertatzerakoan bermatu egin behar zela ikasleak ikastetxeetan banatzeak prebenitu eta eragotzi egin behar zuela kontzentrazio eta segregazio maila altuak sortzea.

Euskal Autonomia Erkidego mailan estilo bereko hainbat egitasmo abiarazi dira, esaterako Immigrazioaren, Herritartasunaren eta Kultura arteko Bizkidetasunaren III. Plana. Horrez gain, hezkuntza arloan plan zehatzak finkatu dira, esaterako Ikasle etorkinentzako hezkuntza arretarako plana, eskola inklusibo eta kultura artekoaren markoan (2012-2015); ikasle etorkinen eskolatzeari dagokionez egoeren aniztasuna aintzat hartu ondoren, eta kasu batzuetan gehiegizko kontzentrazioa dagoela frogatu eta gero, araudia, programak eta jarduteko protokoloak eguneratzea eta egokitzea helburu gisa ezarri dira, ikasle guztien eskolaratze inklusiboa ahalbidetuko duten irizpideei erreparatuz, eta honako hauek helmuga gisa jarritz, besteak beste: euskal hezkuntza sistemara ohiko matrikulazio epeetatik kanpo sartzen diren ikasleentzat eskolaratze irizpideak berrikustea, argitzea eta bateratzea.

Auzia ikusita, Arartekoaren erakundeak ez du beste alde batera begiratu, eta emandako ezohiko hainbat txostenetan ildo bereko adierazpenak egin ditu. Hala egin zuen 2001ean, *Hezkuntza premia bereziei emandako erantzuna EAEn* gaiari buruzko txostenaren haritik, eta handik urte batzuetara, 2007an, Arrisku egoera berezietan dauden adingabeei buruzko txostena zela-eta. Azken horren xedea ordura arte egindakoa laburbiltzea eta xedatzea izan zen, eta segregazioaren arriskuei buruzko ohartarazpena modu argi eta garbian azaldu zuen; horrez gain, agerian utzi zuen eskola ghettoak finkatzea eragotzi eta inklusioa sustatu behar zuten neurriak hartu behar zirela.

Beste defentsa lan batzuk ere garatu dira esparru horretan, eta zentzu bereko beste gomendio eta aholku batzuk plazaratu dira. 2003an Herriaren Defendatzailearen erakundeak txosten bat argitaratu zuen, *La escolarización del alumnado inmigrante en España: análisis descriptivo y estudio empírico* izenburuarekin. 2008an, berriz, Sindic de Greuges erakundeak *La Segregación Escolar en Cataluña* izenburudun ezohiko txostena plazaratu zuen.





3.- Aurreko atalean, Europa mailako eta nazioarteko hainbat erakundek egindako gomendioak aipatu ditugunean, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa onartzeari esker egin diren aurrerapenei buruzko aipamen positiboak jaso nahi izan ditugu; orain hizpide daukagunari dagokionez, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bitartez ondoren aplikatutako aldaketek ez zuten eragin berezirik sorrazi.

Hain zuzen ere, lege horretako 84.1 artikuluan aipatu zen hezkuntza administrazioek ikasleak zentro publiko eta itunpeko zentroetan onartzea arautuko zutela, bermatzeko hezkuntzarako eskubidea, sarbidea berdintasun baldintzetan eta gurasoek zentroa aukeratzeko askatasuna; horrez gain, berariazko agindu bat ere badu lege horrek, eta horren bitartez ezarri zen, nolahi ere, hezkuntza laguntza zehatza behar duten ikasleak modu orekatuan eta egokian banatuko zirela ikastetxeen artea.<sup>1</sup>

Zehatzago esateko, 87. artikuluan, zehazki ikasleak onartzerakoan izan beharreko oreka aztertzen duena, hezkuntza arloko administrazioek hezkuntza laguntza zehatza behar duten ikasleen eskolaratze orekatu eta aproposa bermatu behar dutela berriz ere nabarmendu eta berretsi eta gero, denontzat hezkuntza kalitatea, gizarte kohesioa eta aukera berdintasuna ziurtatze aldera, horretarako balizko hiru tresna aurreikusi zituen:

Lehenik eta behin, legeak aipatu zuenez, hezkuntza administrazioek *"establecerán la proporción de alumnos de estas características que deban ser escolarizados en cada uno de los centros públicos y privados concertados y garantizarán los recursos personales y económicos necesarios a los centros para ofrecer dicho apoyo"*. Bigarrenik, ikasle horiei buruz hitz egiterakoan legeak ezarri zuenez, hezkuntza administrazioek *"deberán reservar hasta el final del periodo de preinscripción y matrícula una parte de las plazas de los centros públicos y privados concertados"* Azkenik, hirugarrenik, azaldu zenez, hezkuntza administrazioek ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasleen kopurua % 10era arte areagotzea baimendu ahalko dute, besteak beste, berandu iritsitako ikasleen eskolaratzeko berehalako premiak erantzuteko.

Bestalde, zentroen sarearen programazioa lantzerakoan, legeak 109.2 artikuluan agindu gehigarri bat finkatu zuen hezkuntza arloko administrazioek, hezkuntza eskaintza programatzerakoan, kontuan izan dezaten hezkuntza laguntza zehatza behar duten ikasleen eskolaratze orekatu eta aproposa bermatzea.

---

<sup>1</sup> EA Eren eremuan onetsi den eskola inklusiboaren testuinguruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoarekin bat eginez, honako hauek, besteak beste, hezkuntzako laguntza zehatzaren beharra duten ikasleak hartuko dira: hezkuntza sisteman berandu sartzen diren ikasleak, gizarte desperekotasun egoera pairatzen duten ikasleak eta egoera pertsonalengatik edo eskolako historiari lotutako inguruabarrengatik behar duten ikasleak.



4.- EAE mailan ikasleak onartzeari dagokion auzia martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuak garatu zuen arauen aldetik, bai ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan.

Dekretu honetako 14. artikulua hezkuntza laguntza zehatza behar duten ikasleentzat plazak erreserbatzeko aukera ezarri zuen. Hain zuzen ere, adierazitakoaren haritik, ikastetxe guztiek, dagokien aplikazio esparruaren barruan, kasuan kasuko lurralde ordezkariak horretarako ezarritako plazak matrikulen eta aurreinskripzioen aldiak bukatu arte erreserbatu behar dituzte. Maila eta hezkuntza etapa bakoitzean erreserbatu beharreko plaza kopurua kasuan kasuko onarpen prozesua hasi aurretik zehaztu behar da. Nolanahi ere, ikasle horiek ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxeen artean modu orekatuan banatzeko ahalegina egin behar da, hezkuntza sisteman txertatzea erraztuko duten baldintzetan.

Dekretu horretako 20.2 artikulua xedatu zuen, halaber, ikasturtea hasi eta gero eskolatu beharreko ikasleen eskolaratzea ahalbidetzeko lurralde mailako ordezkariak ikasgela bakoitzeko gehienezko ikasle kopurua % 10era arte areagotu ahalko dutela.

Ikusi ahal izan denez, dekretu horrek LOEren 87. artikuluan aurreikusitako hiru tresnetatik bi baino ez ditu jaso hezkuntza laguntza zehatza behar duten ikasleen eskolaratze orekatua eta egokia bermatzeko, eta entzungor egin dio lehenengo atalean aurreikusitako aukerari, ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe bakoitzean eskolara daitekeen ezaugarri horiek dituzten ikasleen proportzioa finkatzeari dagokionez.

Beste alde batetik, otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuak ezarri ditu EAE mailan unibertsitatekoa ez den irakaskuntzaren ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak, ekitate printzipioa barne, ezinbesteko printzipio bezala, antolaketa lan hori bideratu behar duten oinarrizko printzipioen artean.

Araudi horretan, halaber, aurreikuspen zehatzagoak ere badira, esaterako 5.8 artikulukoa; izan ere, atal horretan euskal hezkuntza administrazioari agindua eman zitzaion zaintza lanak egin eta neurriak hartzeko funts publikoekin finantzatutako zentro guztiek erantzukidetasuna parteka dezaten ikasturtea hasi ondoren hezkuntza sistemara sartu beharreko ikasleen eskolaratzean.

5.- Arestian aipatu dugunez, EAEn ikasleen onarpenari buruz onetsitako araudiak ez ditu barruan hartu hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoa duten ikasleen banaketa orekatua sustatzeko Estatuko antolamenduan aurreikusita dauden tresna guztiak, oinarrizkoak izan arren. Ildo horretan, ez da aintzat hartu ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatuetariko bakoitzean eskolatu behar diren horrelako ikasleen proportzioa finkatzeko hasierako aukera. Horretara eraman duten arrazoiak ez ditugu ezagutzen edo ez dira aditzera eman.





Nolanahi ere, aurrekoa albora utzita, EAEn ikasleak onartzeko egin izan diren prozesuen errealitate praktikoak erakusten du Hezkuntza Administrazioak ez duela baliatu dekretuan berariaz aurreikusitako beste tresna bat. Dekretuaren 14. artikulua plazak erreserbatzeko ematen duen aukeraz ari gara.

Beste alde batetik, Hezkuntza Administrazioak ez du beti oso modu egokian erabili plaza kopurua %10eraino handitzeko aukera.

Gure ikuspuntutik, Lasarte-Oriaren kasua horren guztiaren adibide argia da.

Izan ere, Lasarte-Orian, jabeturik egon arren Sasoeta-Zumaburu HLHlan ikasle etorkin gehiegi biltzen ari zirela, hartu diren neurriak, sailburuak Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean egindako agerraldian azaldu zuenez, plangintzako neurriak izan dira gehienbat, hala nola Bigarren Hezkuntzako etapako integrazio eta bat-egite prozesu osoa, eta urte batzuk igaro arte ez da jakingo zenbateraino diren eraginkorrak.

Sailak ez du planteatu nahi izan nolabaiteko plaza erreserba baten aukera, 34/2008 Dekretuaren 14. artikulua onartzen duen gisakoa, eta ez du zuzen jokatu berandu eskolatzen diren ikasleen banaketan. Horrela, entzungor egin die Burunzpe guraso elkartearen ordezkariak horri buruz egin zizkioten eskaerei. Interesdun horien arabera, 2014-2015eko azken ikasturte honetan, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak bere gain hartu behar izan ditu berandu eskolatutako 30 ikasle berri (%6,6 gehiago, lehenik metatuta zeukan %25az gainera).

6.- Edonola ere, lehenengo aurrekarian esan dugun bezala, Burunzpe guraso elkartearen ordezkariak beti esan dute euren kexaren arrazoiak den ikasle banaketaren desoreka hori sortzen lagundu duten faktoreetariko bat P. Garaikoetxea-Landaberri HLHlak erabili izan duen irizpide bat dela, hain zuzen ere gurasoak ikasle ohiak izateari dagokion irizpidea. Beraz, nahitaez aztertu behar dugu kontu hori.

2007an, P. Garaikoetxea-Landaberri HLHlak, jaiotza-tasaren igoera eta baimendutako plazen murrizketa zirela eta, lehenengo aldiz baremoa aplikatu behar izan ziren aurkeztutako onarpen eskaerei, ez zeukalako eskaera guztiei erantzuteko adina plaza. Gertatu ziren berdinketak ebazteko zozketa egin behar izan zuen. Horrexegatik erabaki zuen Ordezkaritza Organo Gorenak irizpide osagarri hori ezartzea, alegia, gurasoak ikasle ohiak izatearen irizpidea, eta bera aplikatu izan da 2008tik aurrera, 2014-2015 ikasturtean izan ezik, orduan ez zelako eskaerak barematu beharrik izan.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko arduradunek erakunde honi igorritako txostenean azaldu dutenez, Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) edo Eskola Kontseiluak askatasunez erabakitako irizpideak ezartzea –halakoa da gurasoak ikasle ohiak izatearen baldintzari dagokion irizpidea– ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duen martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren babesa daukan jokabidea da.







Izan ere, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan jaso diren nahitaezko irizpideak alde zuzenetik ezarrita daude hezkuntza arloko oinarrizko antolamenduan, bai eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean ere (familia unitatearen urteko errenta, bizilekuaren hurbiltasuna, neba-arrebaren bat ikastetxean matrikulatuta egotea, familia ugaria izatea, familia unitateko kideren baten desgaitasuna), eta dekretu horrek, gainera, beste irizpide osagarri batzuk ezarri ditu, hala nola, familia unitateko kideren bat ikastetxeko bazkide kooperatibista izatea eta Eskola Kontseiluak aintzat har ditzakeen beste inguruabar garrantzitsu batzuk. Eskola Kontseiluak erabaki dezake, halaber, puntuazio handiagoarekin baloratzea nahitaez betebeharreko irizpideetariko baten bat; baina, betiere, irizpide horiek irizpide publiko eta objektiboen arabera zehaztu behar dira, eta ez dute bereizkeriarik eragin behar jaioterria, arraza, sexua, erlijioa, iritzia eta beste edozein inguruabar pertsonal zein sozial direla eta.

Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan, ordezkari organo gorenei (OOG) erabakitzeke ematen zaien tarte horrek aukera eman du EAEko hezkuntza zentro askotan ikasleak onartzeko prozesuetan kontuan har dadin gurasoak ikasle ohiak izateari dagokion irizpide hori. Hala ere, behin eta berriz esan dugunez, *Buruzpe* guraso elkarte horren ordezkariak gaitzetsi egin dute irizpide hori eta bereizkeriatzat jo dute.

Hezkuntza arloko arduradunek igorri diguten txostenean, arduradunok aitortzen dute eztabaida egin dutela ikasle ohiak izatearen inguruabar pertsonal hori aintzat hartzeko aukerari buruz, kontuan izanik dekretuak galarazi egiten duela bereizkeriarako bide eman dezaketen inguruabar pertsonal edo sozialei erreparatzea eta halakoak aintzat hartzea.

Horregatik, puntu honetaraino iritsita, agian badugu garaia berdintasun printzipioari buruzko doktrina konstituzional finkatua gogora ekartzeko. Beren-beregi aipatuko dugu, oso argia delako, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 4ko 200/2001 epaia (2001\200 KAE), zeina geroagoko erabaki askotan ere aipatu izan baitu auzitegi horrek (esaterako, urriaren 4ko 171/2012 epaian – 2012\171 KAE):

*“El enjuiciamiento desde la perspectiva del art. 14 CE (...) hace preciso traer a colación la reiterada doctrina constitucional sobre el principio de igualdad y las prohibiciones de discriminación recogidas en el mencionado precepto constitucional.*

*a) El art. 14 CE contiene en su primer inciso una cláusula general de igualdad (...) que exige que los supuestos de hecho iguales sean tratados idénticamente en sus consecuencias jurídicas y que, para introducir diferencias entre ellos, tenga que existir una suficiente justificación de tal diferencia, que aparezca al mismo tiempo como fundada y razonable, de acuerdo con criterios y juicios de valor generalmente aceptados, y cuyas consecuencias no resulten, en todo caso, desproporcionadas.*





*(...), el principio de igualdad, no sólo exige que la diferencia de trato resulte objetivamente justificada, sino también que supere un juicio de proporcionalidad en sede constitucional sobre la relación existente entre la medida adoptada, el resultado producido y la finalidad pretendida.*

*b) La virtualidad del art. 14 CE no se agota, sin embargo, en la cláusula general de igualdad con la que se inicia su contenido, sino que a continuación el precepto constitucional se refiere a la prohibición de una serie de motivos o razones concretos de discriminación.*

*(...)*

*No obstante este Tribunal ha admitido también que los motivos de discriminación que dicho precepto constitucional prohíbe puedan ser utilizados excepcionalmente como criterio de diferenciación jurídica (...), si bien en tales supuestos el canon de control, al enjuiciar la legitimidad de la diferencia y las exigencias de proporcionalidad resulta mucho más estricto, así como más rigurosa la carga de acreditar el carácter justificado de la diferenciación.”*

Hala, bada, inguruabar pertsonala izan arren, ezerk ez du oztopatzen, hasiera batean, gurasoak ikasle ohiak izatea ikasleen onarpenerako irizpide gisa erabili ahal izatea. Galdetu behar dugu, ordea, ea bereizpen faktore horrek ba ote duen bera zilegi egingo duen justifikazio objektibo eta zentzuzkorik eta faktore horren erabilerak ba ote duen behar adinako proportzionaltasunik.

Horri dagokionez, erakunde honek beti uste izan du, orokorki erabili izan den irizpideaenez eta orain arte ez duenez inolako errezelarik edo oposiziorako arrazoirik eragin Hezkuntza Saila zuzentzeko ardura izan duten hurrenez hurreneko taldeetan, hezkuntza arloko arduradunak sinetsita daudela badagoela justifikazio objektibo eta zentzuzkoa irizpide hori aplikatzea babesten duena, hezkuntza zentroetako ordezkartza organoek hala erabakitzen dutenean.

Igorritako informazioan, ordea, hau besterik ez diote: *“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Hezkuntzako lurralde ordezkartzei eman dien jarraibidearen arabera, ez dituzte onartu behar ezaugarri fisikoekin edo gizarte klasearekin zerikusia duten inguruabar pertsonal edo sozialak (adibidez, gurasoek lanbide jakin bat izatea) baloratzen dituzten irizpideak, eta onartu egin behar dituzte bestelako inguruabar pertsonal edo sozialak baloratzen dituzten beste irizpide batzuk, batez ere inguruabar horiek zerikusia badute zentroarekin edo hezkuntza sistemarekin”*. Eta hitz erretoriko hauekin amaitzen dute: *“Irizpide horietan oinarrituta, beti eta inolako eragozpenik gabe onartu izan da zentro batzuek puntuak eman ditzaten eskatzailearen aita edo ama ikastetxeko ikasle ohiak izateagatik”*. Azken batean, ez digute inolako justifikaziorik eman guk espero genuen ildoan.

Kexa honi buruz Euskadiko Eskola Kontseiluarekin duela gutxi izan dugun bilerak, nolana ere, aukera eman digu Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluek Parte Hartzeko Batzordearen eskariz egindako txosten bat ikusteko. Txosten horren





helburua izan da ikuspegi zabaletik heldu ahal izatea familiek eskola esparruan parte hartzearen inguruko arazoei, eta arazo horien izaeraz eta ikasleen errendimenduan nahiz eskolako bizitzan duten eraginaz hausnartzeko oinarriak ezarri ahal izatea.

*Familien parte-hartzea eskolako hezkuntzan. Etorkizunera begira* izeneko txosten honetan, familien parte-hartzearen eta eskolako giroaren arteko lotura aztertu ondoren, atera diren ondorioetako bat honakoa litzateke: eskolan giro egokia bermatzeko faktore garrantzitsuena "*familiek zentroaren parte direla sentitzea*" dela.

Zalantzarik gabe, ondorio horrek errealitate bati erreparatzera behartzen gaitu: ikasleak onartzeko prozesuetarako *eskolaren parte izatearen sentimendu* hori kontuan hartzen dela modu objektibo eta arrazoituan justifikatzeko argumentu bihur daiteke eta antzinako ikaslea izatearen baldintzak ere lotura du horrekin.

Hala bada, bereizketa faktore bat litzateke, berdintasun printzipioaren arabera kontsideratu litekeena.

Proporzionaltasunari dagokionez, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren eranskinean ezarritako baremoa ezinbesteko erreferentzia litzateke.

Jakina denez, baremo horretan aurreikusten da ondorengo irizpideak kontuan hartzea: familiaren errenta (3 puntu), familiaren etxebizitzaren hurbiltasuna (5 puntu), zentroan senideak izatea (9 puntu), familia ugaria izatea (1,5 puntu), ahalmen urritasunen bat izatea (2 puntu), bazkide kooperatibista izatea (1 puntu) eta OOGk askatasunez zehaztutako irizpideak: gurasoetako bat antzina bertako ikasle izandakoa izatea (2 puntu).

Momentu honetan, Lasarte-Oria udalerria eskola-eremu bakar modura konfiguratuta dago eta beraz, familiaren etxebizitza hurbil egotearen irizpidea ezin da kontuan hartu. Gainerako irizpideei dagokienez, argi dago erabakigarriena zentroan senideak izatearena dela, gainerakoekin alderatuta garrantzia erlatiboa ematen zaiolako zentroan. Gainerako irizpideek antzeko eragina dute (1,5 eta 3 puntu bitartean), baita gurasoetako bat antzina bertako ikasle izandakoa izatearena ere (2 puntu) eta beraz, ezin da esan heinik gabekoa denik.

Horren inguruan, beharbada kontuan hartu beharko litzateke baliatutako irizpideetako edozein erabakigarria izan daitekeela zentro zehatz batean sartzeko aukerak sendotzeko orduan. Izan ere, hezkuntza arloko administrazioak berak ez du esan P. Garaikoetxea-Landaberri HLHIn gurasoak antzinako ikasleak izatearen irizpide horrekin antzekorik gertatu ez denik, baina bai gutxitan eta kasu isolatuetan gertatu dela.

Edonola ere, momentu zehatz batean irizpide hori erabakigarria izateak ez du esan nahi heinetik kanpoko irizpidea denik. Arestian adierazi dugun legez, ikasleak onartzeko erabiltzen diren irizpide guztiak proportzionalak izan behar dira eta hori





neurtzeko, baremoan ageri diren gainerako irizpide guztiekin alderatu behar dira. Hori eginez gero, egia da gurasoetako bat antzina ikasle izandakoa izatearen irizpidea ez dela heinik kanpokotzat jo daitekeen irizpidea.

Hala ere, azaldu berri dugun hori zehaztu egin daiteke. Irizpide hori erabakigarria izango balitz, eta gutxitan eta Sailak batzuetan eta kasu isolatuetan gertatzen dela dioen arren hala izango ez balitz eta zentro zehatz baten onarpen prozesuan beti gertatuko balitz, posible litzateke zeharkako diskriminazioa gertatzen dela planteatzea eta eragindako zentroari irizpide hori baliatzen ez uzteko aukera kontsideratzea.

7.- Aurreko atalean esandakoa kontuan hartuta eta azkeneko ñabardura hori gorabehera, erakunde honen aburuz, ez dago arazorik ikasleak onartzeko prozesuetan gurasoak antzina ikasle izandakoak izatearen irizpidea erabiltzeko, betiere zentroen OOGek hala erabakitzen badute eskainitako plaza kopurua eskaera guztiari erantzuteko nahikoa ez den kasuetarako, eta ondorioz aurkeztutako eskaeren baremoa ezarri behar bada. Hezkuntza arloko administrazioa bat etorri beharko da Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluek Parte Hartzeko Batzordeak emandako argumentuarekin.

Alabaina, gure ikuspuntutik, aurreko kontsiderazioetan adierazitakoa laburbilduz, Lasarte-Oriako haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako zentro publiko bien artean ikasle kanpotarrak modu orekatuan banatzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren helburu ukaezina da eta hori ezin da eztabaidatu.

Aitortu beharra dago jada Sailak planifikazio neurri batzuk hartu dituela. Eraginkorrak izatea eta epe ertainera oraingo desoreka konpontzen laguntzea espero dugu. Hain zuzen ere, sailburuak egindako agerraldian azaldu zuen legez, Sailak bigarren hezkuntzako zentroen mailaz mailako fusioa gauzatzea erabaki du eta zalantzarik gabe, eskolaratzeko eskaera aldatu egingo da haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan.

Baina edonola ere, hori gertatu arte eta Sailak berak hezkuntza zentro horietako ikasleen banaketa desorekatua dela aitortu duela kontuan hartuta, ezin dio uko egin martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan espresuki araututa dauden eta posible diren beste ekimen batzuk modu egokian erabiltzeari. Ikasteko beharrizan espezifikook dituzten eta laguntza behar duten ikasleentzako plazak gordetzeaz (14. artikulua) eta ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua % 10eraino igotzeaz (20. artikulua) ari gara.

Azkeneko aukera horri dagokionez, garrantzitsua litzateke Sailak aukera hori modu desegokian ez erabiltzea eta beranduago eskolaratzen diren ikasleen eskolaratzea bermatzeko gordetzea. Zentzu horretan, pertsona askok ohartarazi digute ohiko matrikularen harira gehikuntza hori baimentzeko bizioa dagoela eta horren ondorioz, gero ez da posible izaten beranduago eskolaratzen diren ikasleak onartzea.





Horri guztiari gainerako helburuak eta ekintza estrategikoak eraginkortasunez betetzea gehitu behar zaio, nola ez. Zalantzarik gabe, helburu eta ekintza horiek jarraipena emango diete orain arte eskola inklusibo eta kultura anitzekoaren esparruan ikasle atzerritarrei hezkuntzaren arloko arreta emateko planean (2012-2015) aurreikusi direnei.

\* \* \*

Horrenbestez, erakunde honek espediente honetan egindako esku-hartzea bukatutzat ematea erabaki du, ondorio hauek atera ostean:

### Ondorioak

1.- Ez da arazorik hauteman gurasoak antzina ikasle izandakoak izatearen irizpide hori ikasleak onartzeko irizpide modura erabiltzeko, eskainitako plaza kopurua eskaera guztiari aurre egiteko nahikoa ez denean eta ondorioz aurkeztutako eskaeren baremoa egin behar denean, betiere OOGk irizpide hori erabiltzea adosten badu, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituen martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuak aitortzen dion xedapen esparrua baliatuz, eta hezkuntza arloko administrazioak hala baimentzen badu, ebazpen honetan adierazi dugun salbuespenarekin.

2.- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarentzat helburu ukaezina izan behar da Lasarte-Oriako haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako bi ikastetxe publikoen artean ikasle atzerritarren banaketa orekatua lortzea. Helburu hori lortzeko, Sailak modu egokian erabili behar ditu martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuan espresuki araututako ekimen guztiak, aldi berean eskola inklusibo eta kultura anitzaren esparruan ikasle atzerritarrei hezkuntzaren arloko arreta emateko planari jarraituz xedatzen diren gainerako helburuak betez.

